




## Enpresen konfiantzak hobera egin du hirugarren hiru-hilekoan

Enpresen konfiantza  
Indizea




Iturria: INE.

INEk egindako estatistikaren arabera, EAEko enpresen konfiantzak hobera egin zuen hirugarren hiru-hilekoaren hasieran. Indizeak lortutako maila (131) Ukrainako gerraren aurretik eta pandemia hasi aurretik izandakoaren antzekoa da. Enpresek adierazi dute egoera ona dela eta igurikimenek hobera egin dutela.

## Aireko trafikoa suspertu da EAEko aireportuetan

Aireportuetatik abiatutako pertsonak  
Urte bakoitzeko ekaina. Mila




Iturria: AENA.

Ekainean, EAEko aireportuetan pertsonen trafikoa %139,1 hazi zen aurreko urteko emaitzaren aldean. Guztira, 595.700 bidaiarik hartu zuten hegaldi bat. Horrek esan nahi du 2019ko hil berean izandako jardueraren %94 berreskuratatu dela, serieko daturik handiena erregistratu duen urtea hori izan baitzen.



## KPIa ekainean %9,6an kokatu zen EAEn




Iturria: INE.

**Ekainean, Euskadiko KPIa %9,6 igo zen, 1986ko amaieratik izandako tasarik handiena baita.** Igoera berri horren arrazoiak erregaien, elikagaien, jatetxeen eta ostatuen garestitzea dira. Beste aldetik, azpiko inflazioa %5,4ra igo da.

## Etxebizitzien salmenta %16,4 hazi zen maiatzean

**EAEn saldutako etxebizitzak**  
Urte bakoitzeko urtarriletik maiatzera bitartean



Iturria: INE.

**INEk argitaratu duen informazioaren arabera, etxebizitzien salmentak %16,4 egin zuen gora EAEn maiatzean.** Lehen bost hilabeteetako kopuru metatua 10.000 eragiketarik gorakoa da, eta 2007tik, hau da, higiezinaren burbuila lehertu aurreko urtetik, izandako kopururik handiena da.